

# Wilhelm von Humboldt eta unibertsitate alemaniarra

(Wilhem won Humboldt and the German university)

Menze, Clemens  
Universität zu Köln  
Albertus-magnus-Platz  
50931 Köln

BIBLID [0212-7016 (1996), 41: 2; 365-376]

---

*Humboldtek unibertsitatearen ideia gaurkotzeko egin saioetan bi alderdi islatzen dira, benetako unibertsitatearen eraikitze gogoia, baina baita haren izaera zaharkitua. Hori dela eta, Humboldten ideia sortu zeneko ingurune historikoa eta teorikoa aztertu beharra dago, oinarri-oinarrian duen pentsamendu antolatzailea erakusteko, bai eta gero beraren instituzionalizazio zehatzerako urrats praktikokoak zirriboratu ahal izateko. Hori egindakoan, eta orduan bakarrik, ebaluatu ahal izango da Humboldten unibertsitateaz zuen ideia horren oraingo balioa.*

*Gitz-Hitzak: Unibertsitatea. Zientzia objektiboa. Prestakuntza subjektiboa.*

*Para Humboldt la Universidad tiene como función enlazar la formación subjetiva con la ciencia objetiva, la producción del saber con la formación de la persona. El proyecto de Universidad de Humboldt ha sido con demasiada frecuencia malinterpretado, y hoy sólo puede comprenderse desde el contexto histórico y teórico en el que surge, en muchos sentidos alejado de la realidad actual de la universidad alemana.*

*Palabras Clave: Universidad. Ciencia objetiva. Formación subjetiva.*

*Les tentatives pour actualiser l'idée de l'université d'Humboldt reflètent deux aspects, le désir de construire une vraie université, mais également son caractère obsolète. Etant donné cela, il faut fixer le contexte historique et théorique dans lequel surgit l'idée d'Humboldt pour dévoiler la pensée organisatrice qui est à la base, pour ensuite ébaucher le processus pour son institutionnalisation concrète. Alors seulement on pourra évaluer la valeur actuelle de l'idée d'université d'Humboldt.*

*Mots Clés: Université. Science objective. Formation subjective.*

Wilhelm von Humboldten unibertsitatearen ideia egikaritua izan beharko lukeen egoera historikotik desitsatsi den mitoa bihurtuta da aspalditik. Bereganako itzulera eguneratzaileetan bi aldeak nahasten dira, utopikoa, zeinen bidez hegoak ematen zaizkion benetako unibertsitatearekiko irrikari, eta desegokia, zeinak errotik huts egindakoa eta zaharkitutakoa adierazten duen, haserretzen duen harrotasunaz. Halako harreraren gurutzelkartutako bidezidorren aurrean zentzuzkoa da, lehenengoz Humboldten unibertsitatearen adiera sortzen deneko testuinguru historiko eta teoretikoa zirriborratzea, ondoren hura elkarlotzen duen pentsamendu antolatzailea aurkeztea, gero oinarritzko zirrimarretan bere instituzionalizazio eta segurtapeneranzko urrats praktikokoak marraztea, azkenik azken ohar batean unibertsitatearentzat gaur haren oroitzapenak duen zentzuaz galdetzea.

## I

Tilsiteko Pakearen ondoren Prusiaren egoera hondatua gainditzeko vom Stein baroiaren eta bere inguruan bildutako pertsonen konbentzimenduaren arabera harremanen funtsezko aldaketa behar zen, estatuaren independentzia mantentzeko eta bere boterea birsortu ahal izateko. Steinen erreforma asmoak zein alor ezberdinetara zabalduko ote diren, honen arrakastaren baldintza herriaren jarreraren eraldaketan datza, zein ezin den gehiago objektu modura tratatu, baizik eta bere buruaren kontziente bihurtu eta urratsez urrats erreforma hauen subjektu eratu behar den. Askatasuna betetzen duen berezkitasunaren bizigarritik soilik, horrela dio judizio orokorrak, sor daiteke nazioaren balio propiorako eta gizabanakoaren duintasunerako sentimendua. Steinek ez zien xede honen lorpenerako bere egitasmoan garrantzi berezirik egotzi hezkuntza erakundeeri (Bildungswesen). Aitzitik, bere denboran aski zabaldutako, baita Prusian ere jarraitzen zen pentsamendu utilitarioari egokituz, ezagutza eta trebetasun arartegabe aplikagarri, erabilgarrietara jotzen du, zeinek bere ikuspegitik ekonomiaren sakontze beharrezkoarekin, aldiberean baita kontzientzia politiko berria ere, eta honekin herriaren hezkuntza (Volksbildung) aurrera bultzatzen duten. Steinek errege prusiarrari Wilhelm von Humboldt heziketa (Cultus) eta eskola publikorako atalaren buru gisa proposatzen dionean, ezin du aurreikusi honek jasotako hezkuntza erakundeak (Bildungswesen) errotik zeharrratu eta hezkuntzaren erreforma bera (Bildungsreform) erreforma lan zabalaren berme bihurtu nahi duela<sup>1</sup>. Humboldtentzat Steinen erreformak, hiri ordenarekin bere erdigune gisa, berantiarak bezain ezinbestekoak dira. Aldiberean, ordea, osatzeko beharra dutela ere baderitzo; bada, estatuaren apalkuntza sakonenari erantzun gisa sortutako une bateko aldibero erreformatzailea baino gehiago izan behar badu, baldintza batzuk bete behar dira, gizakiak gaitzen dituenak sartu beharreko erreformen bitartez eskatua izan behar zaiena bete ahal izateko, hau da, erakunde publikoei (Gemeinwesen) erreforma asmoek jarritako eginbeharretan aktiboki partaide izatea eta parte hartze eta ordezkatzearen bitartez bere taxukeran eragitea. Hain gutxi ezezagutzen du Humboldtek Steinekin parte izate aktiboren esanahi hezitzailea (bildende), ez zaiola nahikoa lankidetzat hutsa eskatzea, baizik batez ere beharrezkoa da, norbera ez soilik ad hoc prestatua aurkitzea, baizik eskakizun berriei egokitu ahal izateko gai bihurtzea. Gizakiak testuinguru politiko berezitik datozten behar eta eskabideetarako harbera eta heldu bihurtu behar dira bere pentsamoldearen iraulketa beraren bitartez. Hau, ordea, ezin daiteke lortu arauen bitartez, hezkuntzaren (Bildung) bidetik soilik baizik. Hezkuntzaren erreforma (Bildungsreform), beraz, Humboldtek Steinen kalera- tzea eta ihesa ondoren bururatu eta egikaritzeari ekiten diona, ez da Steinen beste erreformen ondoan dagoen asmoa, beharrezko balitz utzi litekeena, baizik oinarriak jartzen dituen neurria, zeinak guztiaren aurretik erreforma partikularrei iraupena eman diezaiekeen. Ez dago

1. Honekiko eta datorrenarekiko alderatu nire liburuarekin: Die Bildungsreform Wilhelm von Humboldts. Hannover 1975.

aginduen hizkiei kateatua, baizik Steinen erreformen izpiritutik bilakatzen da, zeinaren bultza-da hezkuntza erakundeen (Bildungswesen) oinarriztapen eta antolaketa berrira igortzen den.

Steinen "burutazio" soila izan bazen ere Humboldt postu garrantzitsura ekarri zuena, honek berak susmatzen duen gisa<sup>2</sup>, horrela zailki topatu ahal izango luke aukerak pertsona egokiagorik. Benetan, Humboldt ez zen inoiz azaletik baino aritu hezkuntza eta eskolaren galdera konkretuekin, eta gutxitan adierazi zen funtsez hezkuntza erakundeen (Bildungswesen) antolaketari buruz; baina hezkuntzaren (Bildung) teoria bat zirrimarratu zuen, zeinak ilustrazioaren aurrerapen sinesmen orokorraren eta iraultza frantsesaren bide okerren kritikatik abiatuz, gizakia balizko aurrerapenean alboko funtzioa jokatzeko duenaren gisa ez zuen ulertzen, baizik eta bera gizaki gisa azkar aldatzen den munduan aurrera bultzatzen ahalegintzen zen, ez bere inguruan zerbait burutzeko soilik, baizik bere gizatasunean hobetzeko. Horregatik, harremanen hobekuntzarako eskuhaga ezin daiteke egon berri asmatu beharreko nolanhiko artifizio batean, zeinak bapatean birmoldaketa bat eragiten duen, baizik barnekoan soilik aurkitzen da, gizakiaren gogamenean bertan. Beraz, Humboldtentzat bere hezkuntzaren teoria (Bildungstheorie), ilustraziotik bereiziz, gizadiaren prestakuntzari (Ausbildung) buruzko galdera gizakian, eta honek indibidualtasunerako esan nahi du, erdigune bihurtzen da. Prestakuntza hau (Ausbildung) munduarekin elkarreaginean burutzen da, beharketa eta bortxaz aske izan eta gizakia berezkoak dituen indarrak armonia proportziodunean eratzeko moduan bizitu behar du. Horren bitartez, konturatuko da gero eta gehiago bere benetako esentziaz, ausazko subjektibo soil guztiaz libratzen den, gero eta gehiago arazten den gizakia. Bere indibidualtasunean gizatasuna bere baitan bere eran aurkezten duen gizatasunaren idealaren osagai eratzailea osatzen du, zeinak giza izanaren betetasun agorrezina errepresentatzen duen. Hezkuntza (Bildung) norberaren hezkuntza (Selbstbildung) gisa, beraz, ez da bihurtzen Humboldtentzat bere berezitasunean prestatzeko (ausbilden) giza eskubide soilik, baizik aldeberean baita giza eginbehar ere, zeren indibiduo horietako baten hezkuntzarik (Bildung) gabe gizatasunaren ideala bere aberastasunean mugatua izango bailitzake. Hezkuntzaren (Bildung) oztopatzeak, beraz, ez du esan nahi giza eskubidea suspenditzea soilik, baizik aldeberean baita gizatasuna orohar gutxitzea ere, zeinak betirako bere buruaren aurkezpenaren ahalbide bat galduko lukeen. Humboldtentzat unibertsitatearen azken helburua ez da indibidualtasunaren hezkuntza (Bildung) besterik, zeina horren bitartez gizatasunaren sinbolora goratzen den<sup>3</sup>. Ondorioz, gizatasunaren aurkezpenak gizakian, hezkuntzak (Bildung) autodeterminazio gisa giza ahalegin guztien mugari eta azken helburu izan ahal eta behar badute, aurrerapenaren zentzua ez datza gizatasunaren

2. Wilhelm und Caroline von Humboldt in ihren Briefen. Anna von Sydowek argitaratua. Hirugarren liburukia. Berlin 1909, 19. or. (Wilhelmen eskutitza Carolineri 1808ko azaroaren 16an). Ulermen honen aurka dago gobernu prusiarrari Humboldtentz gaitasunak guztiz ezagunak zaizkiola. Bere kargu prusiarraren sartu aurretik atzerriko sailean "arreta zehatzekin berari emandako lan bakoitzaren xehetasunera arte osotasunari begirada orokor ikertzailea zuzentzeko eta ezagutza historiko eta zorrotzasun filosofikoz bertan" sartzeko gai zen gizontzat zuten. (Begiratu Herman Granier: Preußen und die katholische Kirche seit 1640. Nach den Akten des Geheimen Staatsarchivs. 8. liburukia. 1902, 637. or.; 1802ko abuztuaren 22aren instrukzio 15. zenbakia). Interes prusiarraren bere hautemapean arrakastatsuek ebaluaketa hau baieztatzen du (begiratu Granier, 9. liburukia, 512. or.; 545. or.). 1804ko uztailaren 18an idatzen dio Carolinek Humboldti: "Hangwitzek zuregatik esan du, zure zereginak betetzen dituzun eta zure karguan gidatzen duzun moduan, ezingo lizukeela huts legokeen eta zuk nahiko zenukeenik errefusatu" (Wilhelm und Caroline von Humboldt in ihren Briefen, bigarren liburukia, <sup>2</sup>Berlin, 1907, 208. or.). Steinek bazekien beraz, nor proposatzen zuen posturako.

3. Alderatu III 207. Humboldtentz lan eta eskutitzak, besterik ez bada aipatzen Gesammelte Schriften-en arabera aipatuko dira, Zientzien Erretakademia prusiarrak argitaratua, I-XVII liburukiak. Berlin 1903-1936, liburukia (hizki latinoan) eta orriaren zenbakia (arabiarretan) emanez. Ikusi baita ere: Wilhelm von Humboldt. Sein Leben und Wirken, dargestellt in Briefen, Tagebüchern und Dokumenten seiner Zeit. Rudolf Freese argitaratua. <sup>2</sup>Darmstadt 1986, 438. or. (Körner-i eskutitza 1805eko ekainaren 8an).

betegintzarrean baino, "aurreritzi eta ikuspegi aldebakarrek etsaiki gizakien artean sortzen dituzten mugak suntsitzeko, eta gizatasun osoa, erlijioa, nazioa eta kolorea begiratu gabe, hurbil anaitutako leinu, helburu Baten lorpenerako, barne indarraren bilakaera askearen osotasun handi Bat gisa hartzeko"<sup>4</sup> lehian. Kotsiderazio hauen oinarriaren gain dago Humboldtten hezkuntzaren erreformaren egitasmoa, honen menpe dagolarik baita unibertsitatearen kokapena ere.

Lotura eta jarraitasuna bermatzen duten hezkuntza erakundearen (Bildungswesen) oinarritzapen eta antolaketa berrirako, Humboldtten egitasmoak ez dira "goitiko" arauak, ez dira errealtate aurkakorrari ezarri beharreko xehetasuneraino landutako antolaketa egitasmoak. Hauek, gehienbat, zirrimarrentzako ideia nagusiak soilik dituzte bere baitan, zeinak bere errealtateari lotzen diren gertakizun lokalen kotsideraziopean eta hezkuntza erakunde (Bildungswesen) partikularrei beraietara egokitzen diren hedapen konkretuentzako jokaleku zabala irekitzen dien. Humboldtentzat erreformak izendatzen ditu hezkuntza politikako (bildungspolitischer) erabaki konkretu azkengabeak, zeinak bere hezkuntzaren teoriatik (Bildungstheorie) eratortzen diren ideia nagusien esparruan, era ezberdinean hezkuntza erakundeen halabeharrez lortezina den egoera ideala sortu beharko luketen abiadura ezberdinean. Momentukoa hobetzeraz zuzendutako gertakizun gisa, legeztatuta daude, aldiberean gizatasunaren hezkuntzaren (Bildung) egikaritzarako bidean bultzada gisa identifikatu ahal badira. Printzipioaren batasunak, horrela azpimarratzen du Humboldttek behin eta berriz, ezin du irentsi errealtatearen aniztasuna<sup>5</sup>. Erreforma gogoeten erdigunea, ez nolana hiko helburu berezietarako prestatua, baizik, gehienbat, estadio naturaletan jarraikorki aske bilakatzen den hezkuntzaren higadura da, nondik gertatzen den hezkuntza erakundeen antolaketa, hau da, eskola, institutua (Gymnasium), unibertsitatea. Hezkuntzaren maila bakoitza jarraitasun bat da, non iadanik zegoena hurrengoaren aurrebaldintza bihurtzen den. Bide honek ikastearen ahalbidetzetik ikastearen ikasketatik igaroz, honek heldutasuna markatzen duelarik, ikastearen erabilketa aske eta sortzaileraino zuzentzen du. Unibertsitatea hezkuntzaren inguruan biltzen den antolaketa honen azken maila da, bere eduki eta metodo bereziekin arartegabe erabilgarria bilatzen duen eskolarik onartzen ez duelarik, eta araztasunez aurkezten du hezkuntza erakundeen antolaketa berriarekin orohar lor daitekeena. Berlingo Unibertsitatearen sorkuntza, Humboldtten zerbitzu denbora aurretik saiaturia izan zena, nahiz beste xedeekin, Humboldtentzat ereduako kasu bihurtzen da, non bere hezkuntzaren ulermena eta honen hezkuntza antolaketa baten (Bildungsorganisation) egikaritzea egiazta daitezkeen, nahiz Kant, Schelling, Fichte, Schleiermacher-en unibertsitate erreforma egitasmoetan, baina baita Massow edo Beymes frantsesen zirrimarretan zenbait osagai eta berezitasun aurki daitezkeen. Gogoeta moderno hauen edo haien jasotzea, ordea, ez da erabakiorra osotasunaren antolaketarako. Neurria ematen duena eta Humboldti soilik dagokiona, indibiduoaren hezkuntzera bere indibidualtasunean zuzendutako asmoa da, zeinak ordura artekoa baino funtsean guztiz bestelako unibertsitatearen ulermen eta antolaketa eraman behar duen.

## II

Humboldtentzat unibertsitatea hezkuntza institutua (Bildungsinstitut) da batez ere, zientziaren esparruan. Bere funtsezko egitekoa hezkuntza (Bildung) subjektiboa zientzia objektiboarekin lotzea da, beraz, jakintzaren sorrerarekin batera aldiberean gizakiaren hezkuntza sutzatzea. Baina halako esanahi hezitzailea (bildende) dagokion zientzia ezin daiteke giza-

4. VI 38; VI 114.

5. Alderatu XIII 280 eta Wilhelm von Humboldts Theorie aller Reformen nire idazkia. Vierteljahrsschrift für wissenschaftliche Pädagogik. Jg. 62 (1986), 52-79. orriak.

kiaren barneko beraren harreman arartegabeen gogamenaren indar guztien tirandura bitartez baino "izpirituaren sakontasunetik sortua" ( X 253) izan, horrela bere sorreraren ekintza beran objektu gisa gogamenera zuzentzen delarik. Humboldttek gertakizun hau deitzen duen moduan, "norberaren ekintza adiera benetakoenean", non zientzia gogamenaren "alde guztietatik osoki pentsatutako objektua" den, "puntu partikular bakoitza lehengo eta etorkizuneko guztiekin harremanean dago, ez dago hasiera eta bukaerarik, dena da aldiberean bitarteko eta helburu, eta aurrerapausu bakoitza irabazia, nahiz atzean arartegabe metalezko hormak jarriko balira ere" (XIII 279). Lotura oso bat gaintitzen da, beraz, non gogamenaren indarretik zientzia sortzen den eta honek aldiberean bizigarriki eta aurrera hezituz (weiterbildend) berriro gogamenean eragiten duen. Behin eta berriz ekin dio Humboldttek subjektuaren ekintzaren bitarteko objektuaren sortze hau historian, historiografoaren lana dena, artean, matematikan eta bereziki hizkuntzan aurkezteari eta azaltzeari<sup>6</sup>. Unibertsitatearentzat, hezkuntza institutu gisa, beraz, erabakiorra da, ez dagokiola soilik "ahalegin zientifiko partikularren arrakastari, baizik batez ere giza esentziaren erdigunea osatzen duen horren tinkadura osoari" (VII 38), beraz, berezkotasunerako indar hari, non honek bere barnetik zientziaren objektua sortzen duen. Zientziak, beraz, benetan zientzia izan behar badu, indar ekile iraunkor horregatik barnetua eta bizitua izan behar du, ezin du inoiz behin betiko bukaera batera ailegatu, inoiz ez "prest" bihurtu, eta "jabetza hutsalaren harropuzkeria faltsuak lekua egin behar dio egiazko jabetzaren bilaketa apalari" (III 346). Humboldtentzat, beraz, ezin ezaba daiteke ikuspegi hau: "Barnekotik datorren eta barnean landatua izan daitekeen zientziak soilik aldatzen du baita izaera ere, eta estatuak gizatasunak baina gutxiago du zerikusia jakintza eta hitz egite-arekin, baizik izaera eta ekintzarekin" (X 253). Egiazko zientzia ez da agortzen Humboldtentzat helburu arbitrario eta uneko interesetzako erabilgarritasunean. Berak isurtzen ditu, azaltzen du, "sarri bere bedeinkapen ongileena bizitzan, hura neurri batean ahazten duela dirudienean" (III 220). Honek bere berezko emaitza ezezagutzen badu, gizakiak bere gizatasunean eta gizatasunerako aurrera eramatea, eta gainera oztopatzen bada, zientzia bide faltsuetan sartzen da, bere zentzua eta garrantzia kostatuz eta gizakia bere gizatasunean alferrikalduz. Unibertsitatearen erdigunean, beraz, zientziaren sorrera dago bere atzeraeragin hezitzailean (bildende) izaeraren gain eta gizakiaren, gizakia den heinean, ekintza moduaren gain. Eragin izpirituak horrek oihartzuna eskatu eta onena lankidetzara gisa hobetzen denez, profesoreak eta ikasleak harreman orokor, dinamiko eta askean biltzen dira elkarrekin, non kanpotik ezarritako inongo helburu ez den gailentzen, baizik indar guztiak elkarrekiko egintza amaigabe batean osotasun baterantz armonia proportziodun baten biltzen diren barnetik, helburudun helburu determinaturik gabe. "Pentsamenduak pentsamenduagatik liluratzen duen tokian", azaltzen du Humboldttek, "hor egiazko zentzu zientifikoak pentsamendua ia bere lehen iturrietaraino bideratzen du" (III 347h.), ikustezina ikuskorrean erakusten duen heinean.

Hezkuntzarentzat eta zientziaren lotura eta hedapenarentzat ezinbestekoa den egintza hau da, profesore eta ikasleek era berean bizitua eta eutsia, Humboldtten unibertsitatearentzat bere zedarripen guztiak sortzen dituen oinarritzko harreman eratzailea. Bera aurkeztzen den bitartekoa hizkuntza da. "Izpirituaren nahigabeko emanazioa" den hizkuntzan soilik, Humboldttek definitzen duen gisa, gizakia munduari aurrejarri eta bere buruaren kontziente bihur daiteke. Bere hizkuntza propioa da, sentitzen, pentsatzen, egiten duen guztian berari

6. Honetarako Die Funktion und Bedeutung der Geschichte in der Bildungslehre Wilhelm von Humboldts. Pädagogische Rundschau. Jg. 39 (1985), 387-432. orriak; Kunst und Bildung in Wilhelm von Humboldts 'Ästhetischen Versuchen'. A. Gehmann-Siefert (arg.): Philosophie und Poesie. Otto Pöggeler zum 60. Geburtstag. Lehen liburukia. Stuttgart 1988, 159-191. orriak; Sprache als Ausgangspunkt der Bildungstheorie Wilhelm von Humboldts. Pädagogische Rundschau. Jg. 42 (1988), 305-318. orriak nire idazkiak begiratu.

lotua dagoelarik, bere atzean utzi ezin duena, beretik irten ezin duena. Bere bidetik pentsatzen behartzen du hark, munduaren bere ikuspegiaren adierazpena da. Gizakiek ez dutenez "inolaz ere beste baten ideia urrunenik ere kontzientzia indibidual gisa" (VII 37), hizkuntzaren indarrak egitan besteena pizten du bai, hizkuntza askaezin lotuta dago gizakoitasunaren eraketarekin: baina inork ez du zehazki ulertzen besteak esaten duena. Besteak esan nahi duenari dagokion zerbait ulertzen du noski, bestearen hitz egitea bere baitan birsortzen duen eta bere hizkuntzara itzultzen duen heinean. Gizakien komunikatzeko beharra, beraz, halabeharrez gaizkiulertzearekin lotua dago, zeina ordea, ez den oztopoa soilik, baizik eta elkarriketara eragiten duen kontrakoan elkarrekikoa gisa. Bada, halabeharrez hizkuntzan jasotako pentsamenduak ez du onartzen ezagutza absoluturik. Hitz egitea, ulertzea, erantzutea beti berri bizitzen den, elkarrekiko osatzen den loturan daude. Elkarriketa beharrezkoa bezain amaigabea den bidean jartzen da, gaizki ulertzeak ireki duen zuloa gizartekoitasunean gainditzeko. Baina ezberdintasun bat geratzen da, ezabaezina eta aurrera eragiten duen indeterminazioaren aztarna. Horregatik, elkarriketa, non batak bestea bizitzen duen elkarreragina beti era berrian eguneratzen den, bukaezina da, beti ere behin behinekoa denean irauten du, balizko behin betikotasun oro gainditzen ditu eta ekinean dirau bukaezin. Profesore eta ikasleen arteko elkarriketan, zeina bata bestean sartzen den bizikiro, ideiak eta sentsazioak elkartrukatu, hizkuntzak era batera eragiten du, "zeinak berez lortutako puntu batean gertzea debekatzen duen" (IV 428). Hark "indibidualitateen ezberdintasuna hizkera arrotzen elkar ulermenaren bitartez batzen du, beren berezitasuna kaltetu gabe" (VI 39; b. baita ere VI 117).

Hizkuntzan betetzen den elkarreragin horren ahalbidetze eta mantentzean erabakita geratzen da unibertsitatearen ernamuina osatzen duen guztia. Askatasuna ezinbestekoa zaio; bada, bera gabe autokontziente bihurtzea eta indibiduaren autodeterminazioa ezin daitezke arrakastatsu izan. Bere ahalbidetzerako lagungarri bakartasuna da. Bakartasuna, ordea, ez da isolamendua, zera esan nahi du batik bat, indibiduoa, egiteko aldagarrietatik sortzen den eguneko berritasun eta joanetorrietatik aske, urrundu egiten dela, bere baitara itzultzen dela, eta lasaitasunean hezkuntzarako (Bildung) bizigarri den zientzia hutsarekiko egitekoan kontzentratzen dela, eta interes eta helburu berezietatik askatutako pentsamenduaren joku askean kideekin zerbait berria sor dezakeela.

Pentsamendu honetatik dator aurreko unibertsitate ororekiko diferentzia. Humboldtten unibertsitateak ez du ezagutzen maisu-ikasle harremanik. Profesorea ez da irakaslea, estudiantea ez da ikaslea. Biak elkar osatzen dute eta bakoitzak bere kaxa ikertzen dute. Beren harremana berrezagutzan oinarritzen da. Berrezagutza ez da bestea gizaki gisa jasan besterik egiten duen tolerantzia, baizik bestea bere beste izate konkretuan serio hartu eta baieztapenean datza, non bere indibidualitate berezia, bakarra, ez den defizita gisa sentitzen, baizik norbere buruaren eta munduaren norbere ikuspegiaren aberaste gisa ulertzen den. Dogmatismo mugatzailea, egoskorki itxuraldatzen duen aldebakartasuna baztertzen ditu. Profesorearen iharduerak estudiantearena eskatzen du eta alderantziz. Bere borondatez biltzen dira estudianteak profesorearen inguruan eta berarekin batera saiatzan dira ezagutzaren eta hezkuntzaren aurrerapenean. Profesoreak aurretik eragiketa eta esperientzia luzeagatik daukana, estudianteak berezko eta jatorrizkoak diren esku hartze eta konbinazioekin betetzen du, beraien arteko elkarriketa bizitzen dutenak. Profesoreak kontsiderazioen bidea "urrutitik" gidatzen du, dio Humboldtnek (b. X 251 eta h.). Ez du eskuartzan agirika eta ez du zuzentzen, baizik eta zeharbide batera itxuraz daramaten pentsamenduak erabiltzen ditu, ñabarduraz betetako argumentazioa eztabaida askean argitzeko eta osatzeko. Bere gidatzea ez da "dirijitzea". Ez dago, beraz, Humboldtten unibertsitatean klaseetara joateko beharrezkotasunik, ez propedeutikarik, ezagutza antolatua bitartekaritaz lehenik behin oinarri bat eman beharko lukeena, ez ikasketa plangintzarik, estudioa zailli orokorrean kon-

bentzituko lukeen erregelekin bide determinatu batean behartzen dutenak, azkenik ez azterketarik, zeinek emaitza fixuak, trebetasun bereziak, berezitasun lokabeak galde litzatekeen gaitasunen mailaren neurri gisa. Unibertsitateak ez du ezagutzen gaia beragatik legeztatutako bukaerarik. Bere izaeraren arabera hontan agortzen da, “zientzia oraindik osoki bilatu ez den zerbait eta inoiz osoki asmatzekotzat kontsideratzen, eta etengabe horren gisa bilatzen” (X 253). Bere errealitatea, beraz, “etenik gabeko, beti bere burua bizitzen duen, baina aske eta asmorik gabeko elkarreragina” (X 251) da, zeinak hura jarraikorki berri sortu eta mantendu behar duen. Humboldtentzat emaitzak ez dira erabakiorrak, baizik etengabeki zuzenketa-ara behartzen duen halako eztabaidaren egikaritzea, zeina jarrera politikoa, erlijio nahigotasun, iritzi doktrinal dogmatikoetatik aske osatu behar den. Berez, hezitzaileki eragiten duen (bildungswirksamer) zientzia honen sorkuntza jarraituan eta irudimen aberastasun eta iraunkortasunetik datorrenean soilik dago unibertsitatearen oinarrizko zentzua, ez dena frogatzen emaitza eta lan berezietan, baizik elkarreraginaren egikaritzea hezitzailean. Irakasketa ez dago, beraz, ikerketatik berezia bere aurrebaldintza gisa, ikerketa ez da jakina desiragarri, baina gehienbat eranskin gertakorra. Bada, irakasketa ez da jakintza bitartekaritza soil, adituek sartutako eta idatzitako ezagutza berrien bitartez ohikoaren monotoniatik ateratzen dena eta arretea pizten duena. Ikerketa ez da ordura arte ezezagunaren eranskina, harridura soilik sortu dezakeena. Irakasketa eta ikerketa soilik dira hezitzaileki eraginkor eta honegatik soilik unibertsitatean legeztatutak, bata bestearen bitarteko eta objektu ez izanik, baizik biak egikaritzea batean ezagutza sortu eta norberaren hezkuntza indartzen badute. Bere garrantzia ez datza irakaskuntzan, hezkuntzan baizik. Ikertzeak eta ikasteak batasun bat osatzen dute elkarrekiko eragin honetan. Humboldték ez du zientzia gutxienesten. Baina bera ez da azken helburua, nahiz “azkena eta gorenerako maila” (III 348), bitarteko ezin hobea gizakien autodeterminazioaren bizigarri eta adierazpenerako. Ikerketa eta irakasketaren batasuna eta askatasuna ezinbestekoak dira, beraz, unibertsitatearentzat. Haiek banatzea, bata bestearen aurrebaldintzat edo ondorioztat hartzeari ekiten dionak unibertsitatea alferrik galtzen du, norberaren hezkuntza ezeztatzen du zientzia positiborako ahaleginarekin eta indibiduok bere balio propioa galtzeko bidea prestatzen du. Gazteak unibertsitatera doaz bere adinekoekin eta profesoreekin elkartuta urte sail batean bere gauzatasun eta joerari dagokion moduan bizitzera, zientzia hutsaren ahaleginean hezitza (sich bilden) eta horrela hiritar gisa gizarte eta estatuaren esparru berezietan adibide eta ekintzaren bitartez horretara laguntzeko gai bihurtzeko, gizakiak gizaki izateagatik errespetatzera, herria bera hezkuntza aurrerakorrera bultzatzera, askatasunaren bidean piska bat aurrerago bideratzen duten bila-kaera oro eskatzera. Horrela, unibertsitatea askatasunaren erreinuaren islada bihurtzen da. Unibertsitatea sortzen deneko egoera politikoa konkretuarekiko, aitzinapen ausart honek zera esan nahi du, Prusia garaituan askatasunaren kontzientzia sortu eta Steinen zentzuan lagundu behar duela bortizkeria zapaltzailearen iteerarako prestatzera eta gizaki guztiek bere izate hutsagatik jarrita daukaten gizatasunaren egikaritzaren egitekoa gogoratzera.

Humboldték ez du ezezagutzen unibertsitateak erantzun behar dien pentsamendu eta egiteko horiek bere alderantzizkoan oso erraz alda daitezkeen arrisku handia, amets eder gisa, estutzen duen beharrak zuzendutako ihesa fantasiaz betetako ilusiotzat agerrarazi dezakeen gisa. Arriskuak unibertsitatea ez du batez ere halako botere gaizto anonimoengatik mehatxatzen. Bera gehienbat unibertsitatearentzat eratzaila, baina beti ere ahula den harremanean dago, profesore eta estudiantengan, hau oinarritu eta elkarrekin mantendu behar dutenak. Professorei bakarrik ezin zaie utzi unibertsitatea, zeren Humboldték badaki esperientzia propioz, ez azkenengoz berak zuzendutako izendapen ugariengatik, haien berekoitasun harroputz, autoisladatzaileako, beren ikuspuntu zientifiko eta mundu ikusmolde personalen jarpen absoluturako, elkar etortzen direnen aldekotzarako eta horri lotutako lagun multzorako joera. Eskura inoiz gehiago ez dagoen aurreulermen baten gurtzapenean

oinarritzen diren "eskola" zientifikoak, alderdikeria eskatzera iritsiz, iritzien zintasuna eta aniztasuna ezabatzearekin, ez dute lekurik bere unibertsitatean zientziaren etsai eta hezigabeak (bildungslos) direlako. Estudianteen aldetik bihurtuta horri dagokiona heldugabetasunetik datorren eskolakeria da, horrekin batera doazen beste agerpen askorekin, eta helburu motzek garaitutako karrera eta ogi-estudioa. Unibertsitatearen baretik altzatzen diren mehatxu horien aurka neurri eragingarriagoak behar dira, Humboldtten konbentzimenduaren arabera estatuak soilik har ditzakeenak. Estatuak soilik segurtu ditzake unibertsitatea lehenik eta behin ahalbidetzen eta mantentzen duten aurrebaldintzak.

Estatu horrek ezin du izan ordura artekoa, Humboldttek bere idazki gaztean, "Ideiak", bere eraginaren muga estuak jarri zizkiona baizik, bere egitekoa segurtasunera mugatu zuena helburu egoki bakar gisa eta soilik zuzenbide institutu, ez heziketa institutu (Erziehungsinstitut) gisa definitu zuen hura. Bere bizitzan zehar, baita diplomatiko, politiko, Prusiaren zerbitzurako ministro gisa ere, mesfidakor irauin zuen gauza orokiko kompetentzia beretzako eskatzen duen estatuaren aurrean; baina bere garaikide batzuetatik bereiziz, ez du estatua inolaz ere zalantzan jartzen. Beretzat estatuak, alde batetik, esparru instituzionala prestatu eta segurtatu behar du, unibertsitatearen kasuan zientzia eta hezkuntza ahalbidetzen duena, beste aldetik, ordea, estatua bere arazo propioak ez diren etatik kanpo geratzen da. Honek konkretuki zera esan nahi du, finantzaketa ondoan, hasieran menpekotasunak ekiditzeko Humboldttek eman nahi ez ziona, alderdikeria eta dogmatismoaren aurka askatasunaren alde ekiteko gai eta prest dauden profesoreak soilik izendatu ahal dituela, eta unibertsitatera joateko helduak diren estudiantek soilik onartzen dituela. Estatua unibertsitatea zientziaren esparruko hezkuntzan soilik kontzentratu ahal izatearen erantzule da. Baina bera ezin da nahastu funtsezko egiteko honetan. Horrelako bere buruaren mugapenarekin bere helburu propioak bultzatzen ditu, hauek gizatasunaren helburuetara baino zuzendu beharko ez litzatekeelarik.

### III

Humboldtten hezkuntzaren teoriaren araberrako unibertsitate eraberritu baten zirrirmarra gauza bat da, bere bideratze praktikoa bestelako zerbait. Bere garaiko unibertsitatearen erreformatzaile guztien artean Humboldt da egitasmo baten errepresentazioa nahikoa ez duen bakarra, baizik bere ideia egikaritu eta errealtatera ekarri behar duena. Baina hau ez da lortzen, ordea, gutxi prestatutako errealtateari hura inposatuz soilik, baizik egoera konkretuarekiko begirunea behar da, zeina pausoka alda daitekeen teoriaren xede asmoen arabera. Denbora asko eskatzen duen Humboldtten ihardunak finantzaketa eretatik espazio egokien lorpena eta beraien antolaketa besarkatzen ditu, lan handiko xehetasunez beteta. Bere ahaleginen erdian, bere unibertsitatearen ulermenarekin bat eginez, profesoreen izendapena dago, unibertsitatearen izpirituaren eroale erabakior gisa, erdigune iraunkorrek eratu beharko litzatekeelarik, bere inguruan estudiantek bildu ahal izateko.

Bere kargua hartu eta berehala Königsbergen hausnartzen du nor irabazi ahal izango duen unibertsiterako. F. A. Wolf, Savigny, Reil sendagilea eta Gießengo Schmidt teologoa-  
ren aholkua nahi du izendapen proposamenei buruz<sup>7</sup>. Aldiberean, Uhdenek, unibertsitate alemanetara bidaiatzen ari denak mandatatu horrekin, informatzen du pertsona aukeragarriei buruz. Humboldttek, Prusiaren finantza egoera txarra izan arren, soldata erakargarri eta erraz-

7. Aholkularitza talde hau, 1809ko otsailaren 24ean Humboldttek jada F.A. Wolfi idazten diolarik horri buruz (alderatu Wilhelm von Humboldt. Briefe an Friedrich August Wolf textkritisch hg. und kommentiert v. Philip Matson. Berlin, 1990, 259. or.) ez da hala ere gauzatu. Ia urtebete ondorengo egoerarekiko alderatu Humboldtten eskutitza Wolfi 1810eko urtarrilaren 30ean, liburu berdina, 299. or. Orain arte Humboldtten izendapen politikaren ikerketa falta da.



tasunak, postu administratiboetik askapenera iritsiz, eta kasu berezitan F. A. Wolf eta Gausekin bezala, irakasketa beharretik askatuz, ikerketa oporrak eta Akademian kidegoarekin erakartzen du. Aurretratuetan behin betiko ezezkoak ekiditzen saiatzen da, iritzi publikoaren eta unibertsitatearen famaren arretaz. Zenbait profesorek lehen itxaron nahi dute Berlingo Unibertsitatearen bilakaera, zalantzan dute onarpena. Humboldtnek batez ere Halleko profesorengana jotzen du eta Berlingo erakunde zientifikoetako jakintsuengana, kualitatetarako begi onarekin aditu munduan apenas ezagunak diren gazteak aurkitzen ditu, hala nola hogeita bost urteko Immanuel Becker, bere iharduna urte t'erdiko ikerketa oporrekin hasi dezakeena. Dena dela, nahiz minez sentitutako errefusapen batzuk izan, horrela F. A. Wolf eta Gausenak, Humboldtten izendapen politika oso arrakastatsua da. Horri dagokio ez azkenez Berlingo Unibertsitatearen bilakaera azkarra. Aldiberean, Humboldt ahalegindu da, ez soilik kanpoko oztopoak baztertzen, horrela estudiante prusiarren atzerriko unibertsitateetara joateko debekua, baizik baita eskola erakundeak ere era honetara antolatzen, "eskolatik unibertsitateetara iragapena gaztaroko garai bat da, non eskolak, arrakastatsu bada, ikaslea fisikoki, etikoki eta intelektuarki askatasunean eta berezkitasunean utzia izan daitekeela jartzeko duela eta, beharretik askatuta, ez da iragaten aisiaren bidera edo bitzta praktikora, baizik barnean zientziaraino goratzeko irrika eramango du, ordura arte berari soilik nolabait esateko urrutitik erakutsi zaiona" (X 255h.). Professore eta estudianteez zientziaren esparruko elkarreragin gizarteakoiak jartzeko dituen asmoak bete ezker soilik, orduan eratzeko da benetako unibertsitatea. Humboldtten iharduna erdigune honetan kontzentratzen da, nondik hezkuntza politikako erabaki guztiak legeztatu behar diren. Horrela soilik bilaka daiteke frantsesetik desberdina den "unibertsitate alemana", ordura arte horren kontzepturik ere ez zegoelarik apenas<sup>8</sup>.

Hamasei hilabetetako ihardunaren ondoren Humboldtnek bere kargua uzten duenean, konbentziturik dago, bere lana bukatugabea izan arren, baieztatuko den zerbait jarri duela bidean. Bere irteera ondoren ere biziki esku hartzen du unibertsitatearen patuan. Etorkizunean izatearekiko zalantzen aurka zuzentzen da, Halleko Unibertsitatearen irekiera berriaren ondoren bezala, Viena eta Frankfurtetik jakintsu egokiak aholkatzen dizkio, horrela Wohlfarth, Koreff, Klapproth, Bopp, eta bere zentzuan unibertsitateak duen esanahia zabaltzen du, hasieran ez arrakastarik gabe<sup>9</sup>. Baina berak bultzatzen duen konfidantza desagertu egiten da, batez ere zientzia, artea eta hezkuntzarentzat eskatzen den askatasuna politikarekin kontraesanean etortzen denean. 1815eko amaiera/1816ko hasieran iadanik nagusitzen den bilakaerak bere puntu gorena lortzen du Karlsbadeko erabakietan, non ez soilik nahigabea, beldurra eta mesfidantza adierazten diren unibertsitateekiko, baizik horrekin batera unibertsitateei ezarritako mugapenekin profesore eta estudianteen askatasunaren bukaera prestatzen

8. Alderatu. Wilhelm von Humboldt. Briefe an Friedrich August Wolf, 293. or. (1809ko abenduaren 15eko eskutitza).

9. Horrela eskatzen du Altensteinek 1815ean erabat Humboldtten zentzuan zientzia eta artearentzako eraginkortasun indartua eta Prusiaz gain isladatzen dena, zera ziurtatzean: ezer ez egokiago barneko eta atzerriko konfidantzaren segurantz eta aldirian etorkizuneko mundu taiukeraren gaineko eraginaren indartzerako, "erabat faltak diren Prusiarren misioarekiko ardura guztiak, hau da, lortutako handitasun militarren bilaketaren legeztapena eta iritzi publiko horretarako irabazteko konbentzimendu gisa Prusiak... baieztatu dituela lehenago gertatutako zorigaitzo handien ondoren zientzia eta artearen suztapenarekiko ez soilik argi baita esanguratsua diren urratsak ere, orain bere zorionarenean bere handiera eta indarren neurrien arabera egikaritutako dira". (Bericht und Generalbericht Altensteins über sein Commissarium in Paris vom 26. Oktober 1815 und 2. Juli 1815, abgedruckt bei Wolfgang Ehrhardt: Das akademische Kunstmuseum der Universität Bonn unter der Direktion von Friedrich Gottlieb Welcker und Otto Jahn. Opladen 1982, 154. or.).

den. Humboldt erabaki ekinkorrez aurkakotzen da. Jakintsu pertsegituen alde egiten du, oinarritzkoa xedetzat duen ahaleginekin ezin du, ordea, aldaketarik sortu politikan. Erregeak bere atsekabea adierazten dio ministroari eta azkenean kargutik botatzen du 1819ko abenduaren 31an. 1823ko udaberrian bera Hardenbergen ondorengoa bihurtzeko saiakerak bere jarrera liberalaren aurkako aurretiko ardurak pizten ditu, zeinak Wittgensteinek Humboldtentzat iraingarria den azkartasunaz erregearentzat biltzen dituen, eta arrakastarik gabe geratzen da<sup>10</sup>. Garai honetarako, ordea, Berlingo Unibertsitatea ere Humboldtten irudikazioari arrotza egin zaio. Horren arrazoiak egoera politikoa, baina baita orduantxe kultur eremuan eragin publikoa irabazten ari den Hegelen filosofia eta zientziaren bilakaeran bertan ere daude. Unibertsitatea ez da aurkezten gehiago zientziaren esparruko hezkuntza erakunde (Bildungseinrichtung) gisa, baizik Humboldtten asmoetatik guztiz urrundu den zientzia instituzio gisa.

#### IV

Diagnostiko historiko hau ikusiz, harritu dezake Humboldtten ideia eragindarraren oroimena gaur arte ez itzaltzea, gainera orain dela gutxi 'Wilhelm von Humboldtengana itzuli!' aldarrikatu izatea. Hala ere, halako itzuliak zer esan nahi duen eta zein erabaki konkretu lotu beharko litzaiokeen, ez dago argi. Bada, gaurko unibertsitate alemaniarra ez dago Humboldtten tradizioan. Humboldtten unibertsitatearen ideia ukapena ez du soilik asko aipatzen den politizazio eta berari hertsiki lotutako burokratizazio eta eskolatzeak<sup>11</sup> eragiten. Hauek, batez ere, Humboldtten unibertsitatearen erdigunean jarritako zientzia eta hezkuntzaren lotura ezabatzean sortzen diren bilakaerak dira. Zientziaren atzeraeragin hezitzailearen (bildenden) ordez ikerketa gaiarekiko kontzentrazio hutsa jartzen da. Unibertsitateak ez du zerbitzatu gehiago indibiduoaren hezkuntza, baizik eta ezagutzaren aurrerapenera eta ogibidezko jakintzara zuzentzen da. Horregatik gogoetatu da unibertsitatean mailaketa antolatzailerak ezartzea, non lehenengo zatian ogibide eta ikerketa propedeutika, bigarrena, ikerketan kontzentratutako diren aukeratutako estudiantentzat soilik, orain dela 150 urte baino lehen iadanik Marbachek bere "Unibertsitateak eta goi eskolak inteligentzian oinarritzen den estatuan" (1834) defendatutako ikuspuntua, zeina orain dela gutxi kontseilu zientifiko alemaniarren aipatu duen<sup>12</sup>. Hezkuntza jakina gehigarri ongietorria dela, baina aspalditik ez da gehiago unibertsitatearen azken helburua. Ikasketa eta ikerketa bananduak izan dira eta guztiz harremanik gabe daude aurrez aurre. Horrelako unibertsitatea ezin daiteke legeztatu Humboldtengana joz. Bertan, Humboldtten elkar harreman hezitzailea kasu onenean maisu-ikasle harreman bihurtu da. Ikerketa eta irakasketaren batasunaren utzitzearekin bere askatasuna desagertzen da gaiaren eta ikasketen beharretan. Humboldtten unibertsitatearen ulermena funtziorik gabe bihurtu dela dirudi, garai aurreindustrial baten egoeran oinarritzen delako eta modaz kanpoko bihurtu den bere antolakuntza gaurko eskakizunei ez dagokiolarako, zeren zientzia eta gizartearen bizitzaren arteko lotura zuzena ezartzen baitu, zeina bakuntasun honetan iadanik bere sorreraren garaian existitzen ez zen. Dena den, Humboldtten unibertsitatearen ideia isladak oraindik aurkitzen dira goi mintegi, postgraduako erakunde,

10. Honekiko nire idazkiarekin alderatu: Die Verfassungspläne Wilhelm von Humboldts. Zeitschrift für historische Forschung, 16 (1989), bereziki 343. orrialdea eta hurrengoak.

11. Perspektiven in der Universitätsentwicklung idazkia begiratu, Bildung und Bildungswesen nire liburuan. Hildesheim/New York 1980, 192-200. orrialdeak.

12. Empfehlungen zur Struktur des Studiums. Hg. vom Wissenschaftsrat. Köln 1986. Marbachekiko alderatu: Die Bildungsreform Wilhelm von Humboldts, 424. or. eta hurrengoak.

ikerketan talde gutxi batzuetan, non estudiante zaharrenean eta doktoranduen ikerketan parte hartzea oraindik posible izan daitekeen. Egitan, unibertsitatea zerbitzu eta zientzia enpresa bihurtu da, non hezkuntza, bizitzaren zentzuari buruzko galderak, ez dauden inolaz ere gehiago eguneko gaien artean, argi baitago zientifikoki ezin direla erantzun. Zientzia gizakiak bere buruari jarritako helburuei buruz erabaki ezin duen lanabesa da, dena dela, ondoren azter ditzakeelarik. Indibiduoak ezin du bere bizitzaren moldaketarako zientziara jo, zeina norberaren bilaketa indibidual baterako lagungarri izan daitekeen, baina zentzua sortzen duen instantzia ez den. Garai modernoetan unibertsitatearen heziketa lana (Erziehungsauftrag) azaldu denean eta zientziaren tratutik gehienbat gertakor eta ez arategabe bilatutako alboko efektuak, baita nortasunaren hezkuntzarentzat ere, eragin dituztela dirudien jarrera eta jokabideetara igorri direlarik, orduan nekez baieztatu daiteke, unibertsitateko graduatuak (eta beren profesoreak) beste gizakiak baino hezituagoak (erzogener) eta erantzukizunaren kontzienteago direnik. Horrelako eskakizunek desira ideologikoak betetzeko inpresioa pizten dute, zeinak gizakiaren askatasuna ahalbidetu eta bultzatzeko Humboldtten xedearekin ez datozen halabeharrez bat.

Humboldtten unibertsitatearen ideia oroitzen aurrerapen zientifikoaren bikoiztasunarekin jokatu beharreko erarekiko nahasmen handitik sortzen da. Bere lekua garaia eta kulturaren kritikan du eta sarritan zentzua eta esanahiarekiko gizakiaren beharretik hazten diren galderak behin betiko erantzun ahal izateko itxaropen askaezinarekin lotzen da. Zientziak ezin ditu halako erantzunak eman. Baina Humboldtten hezkuntzaren eskakizuna gizakiaren azken helburu gisa keinu bat besterik ez da norberaren hezkuntza (Selbstbildung) indibidualaren beharrezkotasunerako, zeinaren arrakasta ezin den erabakien bidez antolatu eta sortu, baizik gizaki baten lan pertsonal mantentzen den. Indibiduoari bere burua hezitzen (sich selbst bilden) lagunduko dion ingurune bat sor daiteke soilik. "Egin behar dena", aholkatzen du Humboldtnek, "sorkuntza izpiritual berri, biziarekiko ugaltasuna beti mantendu, hila eta mekanikoa den guztiaren aurka lan egin, ohiz bera aurrera bilakatzen den bizitza beti ordenarekin eta serioki tratatu, eta ahalgarri den heinean, izpiritual eta gogamenaz bizitu" (III 354). Unibertsitate alemaniarra gaur egun oraindik Humboldtten aholku hau serioki hartzeko gai den eta nahi duen, gaur eguneko masen unibertsitateari begiratuz, ziurra ez beste edozer izatea iruditzen zait.

Itzulpena: Ibon Uribarri